

Udalbatza istilutsua

Irailaren 25eko udalbatza liskartsua izan zen. Hasi bezain laster Maria San Gil PPko bozeramaileak bezperan Leitzan Guardia Zibilaren aurka gertatutako atentatua gaitzetsi zuen. Ondoren, Josexo Ibazeta Donostiako Sozialista Abertzaleak taldeko zinegotziak Euskal Herriaren une latzak izan zituen hizpide. Bere taldekideek kartelak zabaldu zituzten "71 donostiar preso" eta "Guardia Zibilak 18 donostiar abiltzatu eta torturatu ditu" leloekin. Odon Elorza alkateak Ibazetari hitza kendu zion, gaiak osoko bilkuraren jardunarekin zerikusirik ez zuela esanez. Udaltzainei karte-

lak kentzeko ere agindu zion.

Udalbatzak jarraitu zuen, baina 11:45 aldera Donostiako Sozialista Abertzaleak taldeko zinegotziek berriro kartelak atera zituzten. Kasu honetan "PP-PSOE faxistak" eta "EAJ eta EA Espainiaren morroi" leloekin. Une horretan Odon Elorza alkateak zinegotzi hauen jarrera gogor kritikatu zuen, eta udalbatzatik alde egitea eskatu zion. Donostiako Sozialista Abertzaleak taldekoek uko egin zioten ateratzeari eta Elorzak bilera bertan behera utzi zuen, ikusleei eta kazetariari ateratzeko aginduz.

PSE-EEko, EA-EAJko eta PPko zinegotziak Udalbatzatik atera ziren, ondoren, Leitzako atentatua salatzen kontzentrazioan parte hartzeko. Bitartean horretan udaltzainek Donostiako Sozialista Abertzaleak taldeko bost zinegotziak Batzar Aretotik aterarazi zituzten.

Ondoren, Donostiako Sozialista Abertzaleak taldeak prentsaurrea eman eta gogor salatu zuen gertatutakoa: "Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoeraren isla" zela adierazi zuen. Udaltzaingoari ez zegozkion lanak eman izana ere salatu zuen.

Argi berdea hainbat etxebizitza proiekturi

Luzea eta ika-mikatsua, horrela labur daiteke asteazkeneko udalbatza. La zortzi ordu iraun zituen osoko bilkura eta bertan ez ziren irainak falta izan, batez ere PPko Maria San Gil eta PSE-EEko Jorge Letamendia zinegotziren artean. Besteak beste, etxebizitza hainbat proiektu eztabaidatu ziren: Loiolako Ibaiertza, Pagola, Nerecan, Montpellier, La Asuncion, Lardi Alde eta Atotxa Erreka. Proiektu horiek guztiak aurrera ateratzeko, PSE-EEK oposizioko alderdiren baten laguntza behar zuen ezinbestean eta EA-EAJ agertu zen PSE-EEri laguntzeko prest, izan ere, talde horretako zinegotzietatik proiektuei baiezkotza eman zieten. PP, PSE-EEren legealdi honetako kide ohia, aldiz, bozkaketa guztietan abstenitu egin zen. Donostiako Sozialista Abertzaleak taldeak ezin izan zuen botoa eman, Odon Elorza alkateak zinegotzi hauek udalbatzatik kanporatzea agindu baitzuen pankartak ateratzeagatik.

Guztira, 3.418 etxebizitza eraikitzea erabaki zen udalbatzan, haietatik 1.017 babes ofizialekoak. Proiektu handiena, zalantzarik gabe, Loiolako Ibaiertzekoa da, eta bertan 2.026 etxebizitza egingo dira, izan ere, aurreikusitako etxeei 202 etxebizitza gehitzea onartu zen asteazke-

nean. 2.026 etxeetatik 630 babes ofizialekoak izango dira. Pagolan (Aiete eta Ibaeta artean), berriz, 598 etxebizitza eraikiko dira, horietatik 316 babes ofizialekoak. Altzan, Nerecanen, 354 egingo dira, 71

babes ofizialekoak, eta Lardi Alden 354, horietatik 106 babes ofizialekoak. Atotxa Erreka, La Asuncion eta Montpellierreko etxeak, azkenik, salmenta librekoak izango dira.

